

Zuzentzak, deadarka,
eskatzen digu egia.
Guk ere, deadarka,
aitortu bear egia.
Bestelaz, bera-beraka
joango da guregaitik.

Leku... leku egiari !!
Lekora bere etsaiak !!
Egia izan bedi
munduan... ! eta anaiak
izan gaitezen beti,
zuzentzaz orniturik.

GAUA

Otsalar

Izadia lotara gauak atzemanik,
eztalki beltz batzuen arduraz gorderik,
egunaren ametsa eten da errotik
pentsamena dalarik soil-soilki billutzik.

Egunak piztu zitun kolore multzoak,
itsutu nai ninduen euzki-printza galdak,
illunak ebakirikan suntsituz guziak
orain barruan ditu gauaren sabelak.

Gauak, ez du beretzat itxaropen kezka,
nabaitzen ez dulako zer den egiera ;
bañan, lasterka doa egun-senti billa.
Ene barneko gaua : ai ene ! geldi da.

